

HIRZPLEAK

Martxoa 2010

4

*Gazte Baserritarrak
EAEko nekazari eta abeltzain
gazteen egoera sozioekonomikoa*





Hizpideak 4. Zk. Martxo 2010 Gazte Baserritarrak
EAEko nekazari eta abeltzain gazteen egoera sozioekonomikoa

Hizpideak nº4 Marzo 2010 Jóvenes Baserritarras
Situación socioeconómica de la juventud agroganadera en la CAPV

Erredakzioa eta argazkiak_Redacción y fotografías: EGK

Diseinua_ Diseño: Nemo Estudio

Egilea:

Laguntzen du:

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi



KULTURA SAILA
Gazteria eta Gazte Ekintzarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción Comunitaria



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Aurkibidea

0. Sarrera.....	5
1. Nekazari eta abeltzain gazteak eta emantzipazioa	7
2. Ikuspegi Orokorra	11
2.1. Lurra Eskuratzearen Arazoa	12
2.2. Nekazaritzako Errentaren Bilakaera.....	15
2.3. Etxebizitza erosteko gaitasuna Landa Eremuan	18
3. EAEko emakume nekazari gazteak.....	25
4. Erakundeen esparru politikoa	28
4.1.- Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB)	28
4.1.1- NPBen lurreratzea EAE	30
5. Elikagaien subiranotasuna, nahi eta ahal den etorkizuna.....	34

Sarrera

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), honako azterlanaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lehen sektorean jarduera produktiboa gauzatzen duten edota gauzatu nahiko luketen pertsona gazteek bizi duten egoera ezagutu nahi du, hasiera baten. Sarritan izaten ditugu esku artean estereotipoz josita dauden gazteei buruzko azterketak, gazteen zenbait kolektibok bizi dituzten errealitate espezifikoekin zerikusirik ez dutenak. Gazteen fenomenoaren errealitate homogeneoa ez dela dakigun heinean, bektore desberdinak mugatu eta zehazteko beharra ikusi dugu, gazteen errealitatea modu errealagoan ezagutzeko aukera izateko.

Aukeratu dugun gaia konplexua da oso, ikuspegi bat baino gehiago duelako, estatistikoki jasotzea zaila delako, datuak ezagutzeko orduan zailtasunak agertzen direlako, eta aurretiaz euskal nekazari eta abeltzain gazteen egoerari buruzko azterlan monografikorik egin ez delako. Horregatik, arazoaren aurre-azterketa bat egin behar izan dugu; bertan, egungo errealitatea ginetik baino ez dugu islatu, etorkizunean egin beharreko bidea ezarri. Hala ere, lehenengo sektoreko gazteek bizi duten egoeraren arazoak aztertzen ausartu gara. Halaber, gure ustez arazoa errotik konpondu dezaketen zenbait neurri proposatu ditugu.

Metodologiari dagokionez, informazio kuantitatiboa informazio kualitatiboarekin osatzen saiatu gara. Horretarako, EHNE elkarteak lehen sektoreko gazteen egoeraren inguruan duen informazioaz baliatu gara. Alde horretatik, aipatu elkartearen EGKren baitan dagoenez, informazio-iturri pribilegiatua da guretzat.

1. Nekazari eta abeltzain gazteak eta emantzipazioa

Gazteen egungo gizarte-dimentsioaz eta bizi duten arazo desberdinez idazten saiatzen garenean, lehenengo eta behin, hori guztia definitu behar dugu; hau da, testuinguru bat ezarri behar dugu, gertukoena ez ezik, azken hamarkadetako aldaketa sozial guztiak barne hartzen dituen. Modu sintetikoegian bada ere, orokorrean esan genezake, 18 eta 30 urte bitarteko pertsona-multzoa hartzen dugula gaztetzat. Talde hori, erabat heterogeneoa izateaz gain, desberdintasun eta aniztasun anitzeko bektorez osatuta dago (irizpide sozioekonomikoak, genero-irizpideak, etnikoak, jatorriaren arabekoak, sexu-orientazioa, ezaugarri fisikoak,...). Elementu horiek, hala ere, ez dira oztopo kolektibo horri modu orokorrean zenbait elementu egozteko orduan. Hori horrela, EAEko gazteok, bai eta inguruko testuinguru sozial eta ekonomikoetan bizi direnak ere, baldintzatuta gaude herritartasuna egikaritzeari dagokionez; bai bigarren mailako egoera sozial batean kokatzen gaituen sistema adultokratiko batean bizi garelako, bai behar besteko estaldura sozial nahiz ekonomikorik ez dugulako. Gazteriaren parte bat, beraz, gizarte-hauskortasun egoera batean dago, eta familiaren aldetiko laguntza zabal batek ere ezin dio lagundu eremu horretatik irteten¹. Aurkeztu dugun azterketan larregi sakontzeak testu honen eremua gainditu egingo lukeenez, lehenengo sektorean jarduera produktiboa gauzatzen duten edota gauzatu nahiko luketen gazteentzako espezifikoko diren eremu sozial eta ekonomikoko zenbait gai baino ez ditugu garatuko.

“EAEko gazteok, baldintzatuta gaude herritartasuna egikaritzeari dagokionez; bai bigarren mailako egoera sozial batean kokatzen gaituen sistema adultokratiko batean bizi garelako, bai behar besteko estaldura sozial nahiz ekonomikorik ez dugulako eta beraz, gazteriaren parte bat gizarte-hauskortasun egoera batean geratzen da”

Egin beharreko lehen zehaztasuna adinari buruzkoa da. Gazteei buruz egin diren azterlanek, orokorrean, 35 urte arte jartzen dute biziaren aldi hori adierazteko muga gisa (gazteria berantiarra moduan ezagutzen den aldia); landa eremuko gazteen kasuan, hala ere, ohikoa da adin-tarte hori 40 urtera arte luzatzea. Beraz, irizpide bera aplikatu behar izan dugu beste zenbait unetan, hori baita gaia ahalik eta modu zorrotzenez lantzeko aukera bakarra.

Gorago esan dugu, nahitaezkoa dela gazteriaren esanahiaren inguruan zenbait argibide ematea; bada, antzeko zerbait gertatzen zaigu emantzipazioaren kontzeptuarekin. Azken urteetan emantzipazioaren definizio operatibo bat garatu dugu EGKn, fenomeno bere osotasunean

¹ Azterketa zehatzagoak aurki daitezke Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Ahotik At argitalpenean, batez ere 4. eta 5. zenbakietan.

ulertzeko balio izan diguna. Gure ustez, beraz, honakoa da emantzipazioaren definizioa: “gazte guztiek beraien eskubideak aukera berdintasunean egikaritzea bermatzen duen prozesua, herritartasun oso eta aktibo baten bidez, norberaren bizi-proiektua modu autonomoan eraikitzea ahalbideratuz”². Beraz, guretzat emantzipazioa ez da une jakin bat, prozesu bat baizik (izan ere, gazteen emantzipaziorako ibilbidean aurrerapauso nahiz atzerakada-une ugari egon ohi dira); horregatik, sektorean sartzeko dauden zailtasunak ez ezik, behin sektorean sartu ostean egon ohi direnak ere azaltzen saiatuko gara. Bestalde, ez dugu uste emantzipazioa arlo sozial eta ekonomikora soilik mugatu beharko litzatekeenik. Hala ere, alde materialenen plano horretan aurkitzen ditugu prozesu horri dagozkion bi arazo larrienak, hau da, etxebizitza eta enplegua.

Gazteriaz orokorrean hitz egiten dugunean arazo horiek biak modu independentean landu baditzakegu ere, nekazari eta abeltzain gazteen kasuan eta, zehatzago, euskal nekazari eta abeltzainei dagokienez, arlo bi-biak estuki lotuta daude. Alde batetik, euskal nekazaritzako sektorean sartzeko modu bakarra auto enpleguaren bidezkoa da; hau da, ustiapienaren titular bilakatzea (nekazaritzako sektorean, eta euskal autonomia erkidegoan, ULUen³ %8 baino ez dagokie soldatateko langileei; Araba da soldatateko baserritar gehien dituen herrialdea⁴). Etxebizitza eskuratzeari dagokionez, erabat baldintzatuta dago sektorearen jardura kokatzen den herrietako berezko ezaugarriekin (batez ere Bizkaia eta Gipuzkoakoak) eta sektorearen berezko ezaugarriekin (5.000 biztanletik beherako udalerriak); izan ere, sarri askotan ustiapienaren gaia eta etxebizitzarena elkarri lotuta joaten dira.

Sektorea osatzen duten edota sektorean sartu nahiko luketen gazte-kopurua zenbatzen saiatuz gero, lehenengo eta behin, “gaur egun” dagoeneko sektorean sartuta dagoen gazte-kopurua ezagutzea ahalbideratzen diguten iturri desberdinak hartuko ditugu kontuan.

1. Taula. Langile-kopurua, Sexu, Adin eta Sektorearen arabera. EAE.

	16-29 1. Sektorea	16-29 Sektore guztiak	16-65 1. Sektorea	16-65 Sektore guztiak
Gizonezkoak	2.700	104.300	9.800	524.600
Emakumeak	720	97.800	4.000	417.600
Guztira	3.400	202.000	1.3800	942.200

Iturria: EPA (IN E), PRA (Eustat), OBJOVEM. I. Hiruhilekoa 2009 (Guk egindakoa)

2 Euskadiko Gazteriarren Kontseilua (2007): “Propuesta Inicial para la Ley de Juventud”. (Argitaratu gabea)

3 ULU: Urteko Lan Unitatea. UTA bat pertsona batek lanaldi osoz urtebetean egindako lanari dagokio.

4 Gazenek “Plan Jóvenes Agricultores de la CAPV”. Eusko Jaurlaritz, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 2004

1. Taulan ikusten dugunez, 2009ko lehen hiruhilekoan 3.400 ziren lehenengo sektorean lanean ziharduten EAEko gazteak. Horietatik 2.700 gizonezkoak ziren eta 720 baino ez emakumeak. Kontuan hartuz gero epealdi horretan EAEn enplegua duten gazteen kopurua, konturatzen garai, enplegua duten gazteen %1,7ak baino ez diharduela lehen sektorean. Datu hori %2,6koa litzateke gizonezkoen kasuan, eta %0,7koa, berriz, emakumeen kasuan.

Gainera, gazteei dagozkien datu horiek sektoreko gainerako langileekin korrelazioan jarrita, ikus dezakegu, gazteek taldearen %25 osatzen dutela; portzentaje hori generoaren arabera banatuz gero, %27,5 gizonezkoak lirateke eta %19,8, berriz, emakumeak.

Ustiapenen titularrei dagozkien datuak kontuan hartzen baditugu (2. taula), zera ikus genezake: 2006an erregistratutako 21.660 nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetatik 160 baino ez zegozkien titular gazteei. Gainera, sexuaren arabera alde nabarmena zen. Pertsona gazteen eskuetan zeuden ustiapen horien guztien artean, 9 baino ez ziren emakumeen titulartasunpekoak. Generoaren arabera alde hori kontrara errepikatzen da, titularraren ezkontide gisa erregistratutako datuei so egiten badiegu: 41 emakume eta 6 gizonezko.

2. taula. Ustiapenetako Titular eta Ugazaba gazteak (16-29) sexuaren arabera. EAE.

	Titular gaztea	Ustiapenetako Titular Ugazaba gaztea	Ezkontidea	Ustiapeneko ugazabaren ezkontidea
Gizonezkoak	151	151	6	0
Emakumeak	9	8	41	0
Guztira	160	159	47	0

Iturria: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ustiapenen Egiturari buruzko inkesta. INE. 2007

Hala ere, pertsona batek sektore jakin batean jarduteak, edo ustiapen bateko titular izateak, ez du esan nahi bizirauteko behar beste baliabide dituenik. Alde batetik, enplegua dutenei dagokienez, oso egoera desberdina bizi duten pertsonak daudelako (soldatapekoak, autonomoak,...); sektore horretako lan-baldintzek, gainera, ezaugarri bereziak dituzte: behin-behinekotasuna, prekaritatea eta urtaroko izaera. Bestalde, eta ustiapenen titularrei dagokienez (Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ustiapenei buruzko Inkestan oinarrituta), esan beharra dago titular horien %24ek beste jardueraren bat burutzen duela; azken jarduera nahiz baliabide horiei esker lortzen du; hain zuzen ere, diru-iturririk esanguratsuena. 1999an egindako azken Nekazal Zentsuaren arabera (INE), badirudi portzentaje horiek areagotu egin direla pertsona gazteen kasuan. Aipatu urteko gehikuntza %50,7 artekoa izan zen, beste jarduera bati ekiten zioten ustiatzaile-titular gazteei dagokienez.

Are zailagoa sektorean noiz sartuko zain dagoen pertsona-kopurua zenbatzea. Horretarako, Euskal Nekazari Gazteen Plana⁵ aipatu besterik ez dugu egin behar; horren arabera, guztira 1.500 lagun lirateke sektorerara sartzeko zain daudenak.



5 Gaztenek “Plan Jóvenes Agricultores de la CAPV”. Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 2004.

2. Ikuspegi Orokorra

Euskal nekazari eta abeltzain gazteei buruz hitz egitea, Euskal Autonomia Erkidego mailan lehen sektoreak bizi duen errealitateari buruz hitz egitearen parekoa litzateke, hein handi batean. Sektore horrek etengabeko beherakada bizi izan du azken hamarkadetan; galera asko izan da, bai tokiko dinamiken eraginez (erabilera-presioa eta lurraren gaineko espekulazioa, banaketa-bideen oligopolio-kontzentrazioa...), bai dinamika orokorren eraginez (Erkidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Politika, elikagai merkeen inportazioa ugaritzea,...); aurrerago saiatuko gara horien guztien ezaugarriak azaltzen. Sektore honetako gazteez hitz egiteak, produkzioaren sektorean bizi diren dinamika horien guztien ondorioak modu argiagoan ikusteko aukera emango digu.

“Sektore honetako gazteez hitz egiteak, produkzioaren sektorean bizi diren dinamika horien guztien ondorioak modu argiagoan ikusteko aukera emango digu”

Gainera, badira euskal nekazaritzari buruzko azterketa egitea ahalbideratzen diguten zenbait ezaugarri. Beraz, eta arestian ikusi bezala, soldata baten truke egindako eskulan gutxi dago (%10etik behera); horrek esan nahi du, sektore honetako lana auto enpleguan oinarritzen dela (bai norbere enpresa osatzen duen pertsona gisa, bai autonomo gisa, bai bestelako azpi enplegu-mota gisa). Sektore horrek, gainera, inbertsio asko eskatzen du (lurra, makinak,...), errentagarritasun minimoekin aurre egin beharreko inbertsioak, alegia. Izan ere, nekazaritza eta abeltzaintzako ia azpi-sektore guztietan gainerako sektore ekonomikoetan baino errentagarritasun txikiagoa aurki genezake.

Produkzio-bide garrantzitsuena, hau da, lurra, mugimendu oso gutxi duen merkatu baten dago; horrez gain, presio handiak jasaten ditu erabilgarritasunari dagokionez (etxebizitza, azpiegiturak, industria,...) eta ondorioz, bere balioa asko handitu da, espekulazioa dela eta.

Horrez gain, sozialki oso irudi txarra duen sektorea da, bai lan-baldintzei dagokienez (eskaten dituen ordu-kopuru handia, egin beharreko lanen nekagarritasuna,...), bai landa-eremuko bizi-baldintzei dagokienez (zerbitzuak eta baliabideak, isolamendua, mugigarritasuna,...).

Sektoreak bizi duen beherakada-prozesuan, belaunaldi-aldaketa da gaur eguneko mehatxurik eta indartsuena.

“Belaunaldi berririk ezak [...] esan nahi du, oso urruti ez dagoen etorkizun batean Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintza sektorea desagertu egingo dela. Beraz, sektorearen beraren etorkizuna da kolokan dagoena, eta euskal gizarteak horren

aurrean ezer egin ezean, galdu egingo da; joera-aldaketa eta ustiapenen gaztetzea dira, zalantzarik gabe, arazo horri aurre egiteko modu bakarrak”⁶

Belaunaldi-aldaketaren arazoaren muinean sartuz gero, gizarteratze-aukerez eta hori egiteko borondateaz hitz egin beharko genuke. Gai horiek biak, hala ere, estuki lotuta daude; izan ere, sektore horretara sartzeko zailtasun objektiboei sektoreak berak duen irudi negatiboa gehituz gero, modu oso nabarmenean zehaztu daiteke sektorean sartzeko benetan dagoen borondatea.


Beraz, sektore horretan pertsona gazteek bizi duten egoera aztertzeiko interesa bikoitza da. Alde batetik, sektorea salbatzeko dauden aukera errealak ebaluatu behar dira eta, bestetik, pertsona horiek egunez egun aurre egin beharreko baldintzak ezagutu.

2.1. Lurra Eskuratzearen Arazoa

Lurra da nekazaritza eta abeltzaintzako produkzio-biderik garrantzitsuenak; bertatik lortzen dira azken produktuak (nekazaritzaren kasua), eta bertatik hornitzen da animalientzako beharrezkoa den janaria (abeltzaintzaren kasua). Sailkapen horretan sartzen ditugu laborantzara zuzentzen diren edota zuzendu daitezkeen lursailak. Bestaldean, lurzorua kontzeptua dugu, hau da, lursailak artifizial bilakatzea helburu duen dinamika.

Ondorengo grafikoa lurraren prezioak EAEn eta Estatu Espainiarrean izan duen bilakaera ikus dezakegu, 1983 eta 2007 urteen artean. Kasu bietan, goranzko linea oso maldatsua dela ikus genezake; EAEko prezio-igoera, hala ere, handiagoa da. 1987an 3.300 euro inguru ordaindu behar zen hektarea bakoitzeko eta 2007an, berriz, prezio hori 15.000 eurora iritsi zen hektareako. 1997-2007 hamarkadan, prezioak ia hirukoiztu egin ziren.

1. grafikoa: Lurraren prezioak izandako bilakaera 83-07 (€/Ha. Prezio Arruntak)



Iturria: Guk egindakoa. Lurreko Prezioaren Inkesta 2007. Ingurumen eta Itsas Inguruneke Ministerioa.

⁶ Gaztenek “Plan Jóvenes Agricultores de la CAP”. Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 2004.

Lurraren merkatuari buruzko informazioa eskuratzeko beste iturri bat, INEk egiten duen hipoteka-estatistika dugu. (3. taula). Azken horri esker ikus dezakegu, bai hipoteka-kredituak dituzten landa-finken kopurua, bai kreditu horien balio osoa. 2008ko datuek ordura arteko joera apurtzen badute ere, aurreko urteetan hipotekadun finken kopurua 1.400 eta 1.578 artekoa zen, eta horien munta ekonomikoa, berriz, 289 milioi euro eta 528 milioi euro artekoa. Finka batek izan dezakeen balio erreala ezagutu nahian, batez besteko hipotekaren balioa kalkulatu dugu. Aipatu epealdian, hipotekek gorakada esanguratsuak izan zituzten (%26koa 2005ean eta %18koa 2006an); hori horrela, epealdiaren bukaeran 334.000 euroko zenbatekoa kontabilizatu zen finkako. Esan bezala, 2008ko estatistikek dagoeneko agerian utzi dute krisi ekonomikoaren eragina; izan ere, atzerakada bat erakusten dute bai hipoteka-eragiketen bolumenean, bai kredituen batez besteko munta nahiz munta osoetan. Aipatu dugun estatistikak ez du berariaz aipatzen nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenen prezioa, basogintza eta bestelako helburuak dituzten ustiapenak ere barne hartzen dituelako; hala ere, baliagarri zaigu, nekazaritzan edota abeltzaintzan jardun nahi duen pertsona batek ordaindu beharreko gutxi gorabeherako kopurua ezagutu ahal izateko.

3. taula. Landa-finken gaineko hipotekak. EAE 2003-07

	Finka-kop.	Zenbateko osoa (milaka €)	Batez besteko hipoteka (€)	Δ batez besteko Hip. (%)
2003	1.405	289.157	205.806	
2004	1.427	307.797	215.695	4,8%
2005	1.548	421.435	272.245	26,2%
2006	1.571	506.585	322.460	18,4%
2007	1.578	528.369	334.835	3,8%
2008	1.316	380.352	289.021	-13,7%

Iturria: Guk egindakoa. Hipoteka Estatistika. INE

Esan bezala, Lurra faktoreak baditu zenbait ezaugarri: merkatuaren mugimendu urria alde batetik, eta jasaten dituen erabilerengatiko presio-altua, bestetik. Faktore horiek biek azaltzen dituzte prezioan inguruan ikusi berri ditugun datuak. Oso gutxi dira lurraren merkatuko dinamismoari buruz jaso ahal izan ditugun datuak; kontrara, erabileren gaineko presioa ondo ulertzeko beste elementu bildu dugu.

Landa Garapeneko 2005-2011 Euskal Planaren arabera, 1991 eta 2001 urteen artean Nekazaritzarako Azaleraren %7 galdu zen guztira EAEn. Aipatu planak honela azaltzen zuen egoera hori:

“Lehenengo kasuan, hiri eremuak zabaltzearen ondorioz, landa-lurren gaineko presioa areagotu egin da: lurraren okupazioa, hirigintzako espekulazioa, etab; mantentzea lortu duen nekazaritzak, sarritan, sektorea industrializatuta lortu du

hori, hau da, areagotuta. Horrek, baina, ondorioak izan ditu bai ingurumenean bai lurraldean, azken bizirautea inolaz ere bermatu gabe.⁷

Plan horren diagnostikoak aipatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak duen errealitate geografikoaren ondorioz, hiri-eremuak eta landa-eremuak elkarren artean oso teilakatuta daude eta, beraz, lehenengo sektorea gainbehera doan sasoi honetan hiri-eremuak hirigintzaren bidez eragiten duen presioa (populazio-aldaketa baino harago doana) jasanezina da nekazaritza eta abeltzaintzarentzat, eta are gehiago arlo horretako bizimodurik eta tradizionalarentzat.

Diagnostikoa osatzeko, Iraunkortasunaren Espainiako Behatokiak emandako informazio zehatzagoz baliatu gaitzke; Ingurumen eta Landa nahiz Itsas Eremuaren Ministerioari atxikitako erakunde horrek lurzorua erabilera-aldaketei buruzko txosten bat argitaratu zuen 2006an. Bertan jasotzen denez, EAE da modu artifizialenean antolatuta dagoen Estatu Espainiarreko lurraldeetako bat; izan ere, azalera artifizialek lurralde osoaren %3,7 okupatzen dute guztira. Horrez gain, adierazten du (4. taulan islatzen den bezala), lurzorua erabilerari dagokionez 1978 eta 2001 urteen artean izandako aldaketa nabarmenena artifizializazioaren ingurukoa izan dela, eremu artifizialek okupatutako eremua %14 gehitu baitzen epealdi horretan.

4. taula. Lurzorua okupazioak izandako bilakaera EAEan.

Lurzorua okupazioa	Azalera (ha)		Aldaketa garbia	
	1987	2000	Azalera (ha)	Portzent (%)
Azal. Artifiziala	23.607,08	26.891,2	3.283,4	13,9
Nekazaritzako Azal.	226.841,8	224.332	-2.509,7	-1,1
Basogintzako Azal.	468.460,8	467.737,1	-723,7	-0,2
Azal. Hezea	785,8	811,2	25,4	3,2
Ur geruzak	4.338,4	4.479,9	136,5	3,1

Iturria: Iraunkortasunaren Espainiako Behatokia

Artifizializazio hori, nekazaritzako lurren pentsura egin da gehienbat, eremu horietako lurraldea %1,1 galdu delarik. Bi dira galera horren erantzukizuna duten dinamikak: Industriadako lursailak sortzea, eta landa-guneetan bigarren etxebizitzak eraikitzeke hirigintzaren ugaltzea.

“Lur horien galerak eragindako ondorioak argiak dira,
hala ingurumenari dagokionez, nola nekazaritzako
produkzioa gauzatzeko zailtasunari dagokionez”

⁷ Euskal Landa-garapenerako Plana 2007-2011. Eusko Jaurlaritza. (2. Aldaketa, 2009ko uztaila)

Lur horien galerak eragindako ondorioak argiak dira, hala ingurumenari dagokionez (gogoratu beharra dago artifizio bilakatu den lursailak ez duela aurrerantzean bestelako erabilerearako balio), nola nekazaritzako produkzioa gauzatzeko zailtasunari dagokionez. Alde batetik, nekazaritzako jardunak gauzatzeko moduko lursailen erabilgarritasun erreala jaitsi da, nekazaritzarako egokienak diren lurak eta hirigintzari dagokionez merkeenak diren lurak berdina direlako (lursail lauak, aranak...). Bestalde, irizpide oso espekulatiboen bidez funtzionatzen duen merkatu baten pean daude, arestian aipatu hazkunde neurrigabea delarik azken ondorioa. Hazkunde horiek asko zailtzen dituzte sektorean esku hartu nahi duten pertsonen aukerak, bai eta karga ekonomiko handiak ere, bertan mantendu nahi dutenentzat.

2.2. Nekazaritzako Errentaren Bilakaera

Estatistika ekonomikoak dira pertsona gazteek lehen sektorean instalatzeari uko egitearen arrazoiak jakiteko edota pausu hori emateko erabakia hartu dutenek bidean aurkitu ohi dituzten zailtasunak ezagutzeko modurik onena. Kasu honetan, nekazaritzako errentaren inguruko estatistikak argi uzten digu zein izan den sektorearen bilakaera azken urteetan.

5. taula: Nekazaritzako Errentaren bilakaera EAE (milaka eurotan)

	2000	2005	Δ (%)
Azken produkzioa	539.101	456.896	-15,25
Diru-laguntzak	45.200	63.041	39,47
Balio Erantsi Gordina (BEG)	423.129	361.836	-14,49
Amortizazioak	32.374	48.308	49,22
Nekazaritzako errenta	390.755	313.528	-19,76

Iturria: Eustat. Nekazaritzako Errentari buruzko estatistika

Ikus dezakegunez, 2000 eta 2005 urteen artean sektore osoaren azken produkzioak 82 milioi euro baino gehiagotan egin zuen behera. Beherakada hori (%15) are esanguratsuagoa da baldin eta kontuan hartzen badugu bosturteko hori hedapen ekonomikoko aldia izan zela; hau da, gainerako sektoreetan goranzko joera mantendu bitartean, lehenengo sektorean beheranzko joera bizi izan zen, urteko %3ko errotmoan. Ingurumen eta Landa nahiz Itsas Eremuko Ministerioak oraintsu argitaratutako datuen arabera, 2007 eta 2008 urteetan estatuko nekazaritzako errentak %4,7 egin zuen behera.

Aipatu beherakada hori nabarmenagoa litzateke, honako datu hau kontuan hartuz gero: epealdi berean, sektoreak jasotako diru-laguntzek %40ko igoera izan zuten. Argi dago, beraz, politika hori ez dela egokia edota ez dela nahikoa sektorearen beheranzko joera hori geldiarazteko.

Jakina zenez, produkzioaren beherakada horrekin, aldi berean Balio Erantsi Gordinaren (BEG) beherakada ere etorri da. Adierazle horrek, sektoreak ekoiztutako ondasunen balioaren eta ondasun horien produkzio-kostuaren arteko aldea neurtzen du. Zenbateko horrek %15 inguruko beherakada izan zuen guztira.

“Bai sektorean sartzeko bai sektorean mantentzeko
 egin diren inbertsioak etengabe handituz joan dira”

Goiko taulak beste datu interesgarri bat ere ematen digu; izan ere, epealdi berean, amortizazioetara bideratuko zenbatekoak %50 inguru egin zuen gora. Horrek esan nahi du, bai sektorean sartzeko bai sektorean mantentzeko egin diren inbertsioak etengabe handituz joan direla. Horren guztiaren azalpen bat lurraren prezioak izan duen garestitzean aurkitzen dugu; hala ere, fenomeno hori azaltzeko, gainerako elementuak produzitzen jarraitzeko errentagarritasun minimoa lortu ahal izateko ustiapenen dimentsio-prozesuaren baitan daude.

Ondorioz, nekazaritzako errenta (ordainsarien guztirako fluxua eta sektoreak jasotako irabaziak) %20 jaitsi zen; horrek esan nahi du 77 milioi euroko galera likidoa egon zela.


Errentaren galera eta, ondorioz, sektorearen beherakada hori, sektorearen beraren errentagarritasunaren testuinguruan kokatu behar da. Modu oso laburtuan azalduta, ondasun jakin baten produkzio-kostuen eta salmentako azken prezioaren arteko zatidura da errentagarritasuna. Produkzio-kostuei dagokienez ikusi berri dugunez, produkzio-bide nagusiaren, hau da, lurraren kostuak etengabe egin du gora azken urteetan (gainerako faktoreek egin duten modu berean), hala ere, prezioen joera guztiz kontrakoa da.

“Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen
 salerosketetarako merkatuak kontzentrazio-prozesu bat
 bizi izan du azken urteetan eta, ondorioz, gutxi batzuk
 baino ez dira sektorea kontrolatzen duten agenteak”

Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen salerosketetarako merkatuak kontzentrazio-prozesu bat bizi izan du azken urteetan eta, ondorioz, gutxi batzuk baino ez dira sektorea kontrolatzen duten agenteak. Hori horrela, elikagaiak banatu eta merkaturatzen dituzten kate handiek erabakitzen dute, produktuaren azken prezioa ez ezik, baita nekazari bakoitzak produktu bakoitzaren trukean jasotzen duen prezioa ere. Kontzentrazio-dinamika hori, gainera, globalizazio ekonomikoaren testuinguruan kokatu behar da; bertan, tokiko nekazal produktuek mundu guztitik etorritako produktuekin lehiatu behar dute, aldi berean. Kontuan hartzen den gauza bakarra, etekina maximizatzea eta ahalik eta irabazirik handiena lortzea da.

2.grafikoan oso modu argian ikus dezakegu zein den boterearen kontzentrazio horrek sektorearen produkzio-katean eragiten duen emaitza. Bertan ikus dezakegu zein den IPOD delakoak (nekazariak jasotako prezioaren eta produktu horien salmenta-prezioaren arteko zatidura) azken urteetan izan duen bilakaera. 2008ko ekainean zatidura horren emaitza 4koa zen gutxi gorabehera (salmenta prezioa ekoizleak jasotako prezioa baino lau bider handiagoa da); urtebete geroago, ordea, azken prezioa produkzioaren trukean jasotakoa baino sei bider handiagoa zen. Horrez gain Nekazari eta Abeltzain Elkartearen Koordinadorak (COAG) emandako datuen arabera, aurtengo lehen seihilekoan jatorrizko prezioak %26 jaitsi dira, eta zenbait kasutan, patataren kasuan esaterako, beherakada hori %66 artekoa izan da.

2. grafikoak: Jatorriko Prezioen Indizearen Eboluzioa eta Elikagaien Helmuga (IPOD).



Iturria: COAG.

Sektoreak beheranzko prozesuan izan dituen emaitzak, eta ekoizleek jasotako prezioen etengabeko beherakadak bi arrazoi nagusi ditu. Alde batetik, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak ixtea eta, bestetik, irekita mantendu diren ustiapenen zabalkundea. Aurreko hori oso modu argian ikusten da (6. taula) ondorengo egitatean: 2003 eta 2007 urteen artean EAEko ustiapen aktiboen kopurua 600 unitate baino gehiagotan jaitsi zen; horiek okupatutako azalera-kopurua, ordea, %2 hazi zen (7.500 hektarea). Asko dira ustiapena utzi behar izaten duten pertsonak. Horrek eragina du enpleguan nahiz sektorearen okupazio-mailan, bai unean bertan, bai etorkizunean. Ustiapenekin aurrera jarraitzen dutenek, ordea, nahitaezkoa dute produkzioa handitzea, baldin eta sektorean biziraun nahi badute, gutxieneko irabaziekin bada ere, eta produkzio-eredu geroz eta produktibista eta industrializatuagoak erabiliaz.

6. taula: Nekazaritzako ustiapenen bilakaera EAEn.

	Ustiapenak	Azalera (ha)
2003	22.272	430.142
2005	21.748	432.404
2007	21.662	437.606
Δ 03-07	-2,74%	+ 1,73%

Iturria: Nekazaritzako Ustiapenen Egiturari buruzko inkesta. INE



2.3. Etxebizitza erosteko gaitasuna Landa Eremuan

Landa-eremuetan mantendu edota nekazaritza nahiz abeltzaintzako jardueraren bat ezartzeko orduan pertsona gazteek aurre egin beharreko beste oztopo handi bat etxebizitza eskuratzearen ingurukoa da. Populazioak azken urteetan gorakada esanguratsua bizi izan badu ere, landa-eremuetan eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako sektorean geroz eta gazte jende gutxiago dago. Horren zergatia faktore bat baino gehiagotan aurki dezakegu: etxebizitzak garestiak direlako, eta gazte horien beharrianetara egokitzen den etxebizitzarik egon ez dagoelako, besteak beste. Errealitate hori dela medio, hirigunean bizi diren gainerako gazteek atzera egiten dute landa-eremuan ezarri eta lehenengo sektorean jardutearen ideia aurrean.

2000 eta 2006 urteen artean, landa-eremuetako biztanleria %10,20 hazi da. Hala ere, eremu horretako zahartze-maila hiriguneetakoa baino handiagoa da, gainerako lurraldeetakoa baino 5 puntu goragokoa, hain zuzen ere. Gazteei dagokien indizeak, era berean, ez du %23 gaitzitzen, gainerako eremuetan gazteek %26osatzen duten artean⁸.

Biztanle gutxi dituzten udalerrietan, landa-eremuetako udalerrietan esaterako, barne-migrazioen urteko tasa esanguratsua dago (%25,8); horrek esan nahi du, landa-eremuetan gertatzen diren asentamenduak EAEko beste puntu batzuetatik etorritakoak direla⁹. Bestalde, esan beharra dago, udalerri txiki horietan biztanle-kopuru garrantzitsuak egiten duela alde beste puntu batzuetara. Lekualdaketa hori %20 ingurukoa da eta arrazoi bat baino gehiago dago horretarako: landa-eremutik kanpo aukera eta erraztasun gehiago aurkitzea zerbitzuak eskuratu eta enplegua bilatzeari dagokionez. Jasotako migrazioaren eraginez, 2.500 biztanletik beherako udalerri horietan ugaritu da gehien etxebizitza-kopurua; hazkunde hori %27,4koa izan zen 1991 eta 2001 urteen artean.

7. taula: Etxebizitza-kopuruaren hazkundera, motaren arabera. 1991-2001

	Familia etxebizitzen hazkundera	Etxebizitza nagusien hazkundera	Etxebizitza ez nagusien hazkundera
<2.500 biztanle	20,1	27,4	6,7
2.500-10.000	20,0	22,3	10,3
10.000-20.000	17,2	18,4	9,4
20.000-40.000	16,5	19,1	-0,1
40.000-100.000	10,3	11,6	-2,2
>100.000	12,6	16,8	-17,9

Iturria: INE.

“Nekazaritza eta abeltzaintzako baliabideak
ustiatzearekin loturarik ez duten lurzoru urbaniza-
ezinetan familia bakar edota biko etxebizitzak eraiki
dira”

Zenbait eremutan bigarren etxebizitzak etxebizitza nagusi bilakatu badira ere, orokorrean, eraikuntzaren hazkundera eta lurzoruaren artifizializazio esanguratsua gertatu da, lehenengo

8 Sustrai aldizkaria, 79.zk.

9 “La contraurbanización en la comunidad autónoma del país vasco” / Roberto TORRES ELIZBURU, Geografía, Historiaurre eta Arkeologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

bizilekua izateko etxebizitza ugari eraiki delako. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (IAI) debekatu egiten da nekazaritza eta abeltzaintzako baliabideak ustiatzearekin loturarik ez duten lurzoru urbaniza- ezinetan familia bakar edota biko etxebizitzak eraikitzea. Hala ere, 2/2006 legea indarrean sartu arte, eraikitzeo lizentzia lortzeko orduan, lursailaren luze-zabalerarekin lotutako gutxieneko murrizketa batzuk baino ez ziren ezartzen. Aipatu lege horren ostean, ordea, jarduerarekin lotutako zenbait baldintza ezarri ziren eraiki ahal izateko (adibidez: eskatzailea nahitaez afiliatuta egotea nekazaritzako gizarte segurantzan, jarduera gutxienez hogeita bost urtez mantentzea etab.). Horren ondorioz, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan etxebizitza berri asko eraiki dira, batez ere familia bakarrek eta familia biko etxebizitzak (8. eta 9. taula), hirigune handien inguruetako eremuetan, gehienbat.

8. taula: Etxebizitza-kopuruaren hazkundera, eta etxebizitza-motak. 1991-2001

	Etxebizitza guztiak				Familia bakarreko eta biko etxebizitzak	
	Familia etxebizitzak	Nagusiak	Bigarren mailakoak	Hutsik daudenak	Familia bakarreko guztiak	Familia bakarreko nagusiak
EAE	14,8	17,6	3,4	-1,2	16,3	20,6

Iturria: INE.

9. taula: 1991-2001 ratean eraikitako familia-etxebizitzaren ehunekoa


<2.500 biztanle	10,3
2.500-10.000	11,3
10.000-20.000	9,0
20.000-40.000	8,3
40.000-100.000	6,3
>100.000	8,3

Iturria: INE.


Faktore horien guztien ondorioz, metro koadroaren prezioak gorakada nabarmena izan du, eta hirigintzako espekulazioa eta lurraren gaineko presioa ere asko hazi da. Hori horrela, landa-eremuetan bizi direnek eta, batez ere, pertsona gazteek, geroz eta zailago dute beraien udalerrian bertan etxebizitza eskuratzeko, gaur egun nagusi diren etxebizitzek tipologia jakin bat dutelako, eskari handia dagoelako, eta prezioak asko igo direlako. Udalerrri horietatik alde egiten duten gazteak toki erakargarriagoetara joaten dira (hiriguneetara, gehienbat)¹⁰.

¹⁰ “El coste de agricultura en el País Vasco” / LUR bilduma, 8. zk. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

3. grafikoa: M² erabilgarriaren arabera prezioaren bilakaera EAEn saltzen diren etxebizitzetan.



4. grafikoa: m² erabilgarriaren arabera prezioaren bilakaera EAEn alokatzen diren etxebizitzetan.



Iturria: 2008ko higiezinaren eskaintza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, EJ

Landa-eremuetan eta biztanle gutxiko udalerrietan EAEko etxebizitzek duten prezioaren inguruko datu berezirik ez dugun arren, uste da, azken horietan gertatu dela prezio igoerarik nabarmenena. Betidanik, hiriguneetako eta kapitaletako etxebizitzak garestiagoak izan dira, landa-eremuetako etxebizitzekin alderatuz gero. Alde hori, ordea, geroz eta murriztagoa da.

“Prezioaren gorakada ikusgarriagoa izan da beheko mailetan. Adibide argi bat ikus dezakegu Gasteiz eta Igorreko gainerako eremu funtzionalean; azken bost urteetan (1997-2002) %133,7 eta %128,4ko hazkunde-tasa izan dute, hurrenez hurren, hiriburuetan izandako hazkundearen hirukoitza, gutxi gorabehera. Hortik ondoriozta dezakegunez, hiriburuetatik gertu dauden eremuetan eta, baita landa-eremuetan ere, prezio merkeak faktore garrantzitsua dira etxebizitza erosteko

erabakia hartzeko orduan. Argudio horrek, beraz, zenbait gauza azaldu ditzake, zati batez bada ere. Alde batetik, oraintsu bizi izan ditugu biztanleen joan-etorriak; eta bestetik, etxebizitzaren garestitzea, eskari-mailaren igoeraren ondorioz.”¹¹

10. taula: Etxebizitzaren prezioa / m² eremu geografikoaren arabera

EREMUAK	PREZIOA/m ² (Eurotan)
Bilbo Metropolia	4.601, 1
Donostia	4.980,1
Durango	4.144,2
Eibar	3.375,6
Gernika -Markina	4.022,1
Igorre	4.055,2
Laudio	2.552,8
Mungia	3.419,3
Tolosa	3.529,0
Gasteiz	3.849,2
* Ikei, Etxebizitzaren eskaintzari buruzko inkesta, EAE 2007	

Metro koadroak duen prezioari so eginez gero (10. taula), ikus dezakegu, Gernika-Markina edota Igorre bezalako eskualdeak (industria potentea izan arren, nekazaritzako jardura mantendu egiten dela oraindik ere eta landa-auzo txikiz osatuta daudela), Eibar edota Gasteiz bezalako udalerri handien gainetik daude.

Joera orokorra hori izanik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Nekazaritza Sailak landa-etxebizitzari buruzko proiektua abiarazi zuen 2006an, inguruneko etxebizitza-eskaintza egokitzeko helburuarekin. Programa hori hiru ardatz nagusitan antolatu zen: 1) Babestutako etxebizitzaren sustapena, landa-babeseko etxebizitzaren figura sortzearen bidez; 2) Erabiltzen ez diren etxebizitza publikoak berriztatu eta alokairuan emateko laguntzak ematea; adibidez, gaur egun erabiltzen ez diren maisuen pisuak; 3) Erabilitako etxebizitza librea eskuratzeko laguntzak ematea.

Oraindik ez dakigu politika horiek zer nolako eragina eta garapena izango duten; hala ere, Babes Ofizialeko Etxebizitzei dagokienez esan beharra dago, biztanleriaren nahiz eraikuntzaren gorakadak ez dutela hazkunde proportzionala babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, eta are gutxiago etxebizitza sozialen kasuan. 2000 eta 2005 artean, 100 biztanle bakoitzeko babes ofizialeko 1,55 etxebizitza hasi ziren Araba, 1,05 Gipuzkoa eta 0,98 Bizkaiko landa eremuan.

11 “El coste de agricultura en el Pais Vasco” / LUR bilduma, 8. zk. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

XX. mendera arte, landa-eremuko etxebizitza nagusia baserria izan da; bertan uztartzen ziren jarduera ekonomiko-produktiboa, bai eta maila sozialekoa ere. Gaur egun, baina, nagusitu den hirigintza eta geografia garapen-mota ez dago nekazaritzako jarduerari lotuta, izan ere, egungo nekazaritza eta abeltzaintza beharrianak kontuan hartuz gero, superabita dagoela ikus genezake, eraikuntza berri gehienak ez baitira beharrezkoak ezta erabilgarriak sektorentzat (IAI, 1999).

“Nekazaritza eta abeltzaintza beharrianak kontuan
 hartuz gero, superabita dagoela ikus genezake,
 eraikuntza berri gehienak ez baitira beharrezkoak ezta
 erabilgarriak sektorentzat”

Gainerako lurraldeetan gertatzen den moduan, hutsik dagoen etxebizitza-kopuru handia dago, hala etxebizitza nagusiak nola bigarren etxebizitzak, hala baserriak nola hiriguneetan kokaturikoak. Horrek, ondorioz, alokairuaren garestitzea dakar, geroz eta eskaintza urriagoa dagoelako. Hori horrela, badakigu 2001ean euskal landa-eremuetan zeuden 43.957 etxebizitzetatik %61,3 baino ez direla etxebizitza nagusiak. Horrek esan nahi du, gainerako 16.993 etxebizitzak hutsik daudela, edota bigarren etxebizitza gisa erabiltzen direla¹².

Bestalde, errenta baxuko kontratu zahar bidez alokairuan emandako baserri asko, gutxieneko bizigarritasun-maila bete ez arren eta errentarien beharrianetara egokitu ez arren, nahiko baldintza prekarioan daude, kontratua noiz bukatuko zain, gero saldu ahal izateko. Zentzu horretan, legeriak ez die baserrietan erreforma egiteko betebeharririk ezartzen jabeei; eta horrek, goian esan bezala, nahiko egoera erosoan ezartzen ditu, errentariak berak erreforma egin dezan zain, edota kontratua bukatzearen zain. Landa errentamenduen Legeak aldaketa asko izan ditu azken hamarkadetan; gaur egun indarrean dagoenak (2005ekoa) ezartzen duenez, errentariei 5 urteko epea ezartzen zaie gutxienez, epe hori luzatzeko aukera dagoen arren eta, besteak beste, errentaria nekazaritzako profesionala izateari lehentasuna ematen zaio. Hala ere, gaur egun landa-eremura jotzen dutenen joera nagusia jabetzapeko etxebizitza erostea da; orain arte gertatutakoaren kontrakoa, alegia. Errentamendua gailendu da ordura arte eta, XVIII. mendean, esaterako, baserrien bi herenetan errentariak bizi ziren¹³.

12 “El coste de agricultura en el País Vasco” / LUR bilduma, 8. zk. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

13 Caro Baroja, j. “De la vida rural vasca”. Txertoa. Donostia, 1974

“Gaur egun landa-eremura jotzen dutenen joera nagusia jabetzapeko etxebizitza erostea da; orain arte gertatutakoaren kontrakoa, alegia”

Nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorera pertsona gazte asko gerturatzen badira ere, ezin daiteke esan guzti-guztiek nekazaritzarako bokazioa dutenik. Sarritan, landa-eremuaren ikuspegi erromantiko eta bukolikoegia izan ohi da. Hori horrela, eta hirietan bizi izan den migrazioari jarraiki, hiriguneetan lan egin ostean lo egitera bueltatzen dira baserrira. Horrek, beraz, landa-eremuan eta landa-eremutik bizi nahi duten pertsonen etxebizitza eskuratzeko aukera kentzen die.

Nekazaritzan jarduteko asmoa duten hiritarren kasuan, ez dute argi ikusten jarduera hori burutzeko ez dela nahitaezkoa baserrian bertan bizitzea, hirigunetik urruti; izan ere, erabat bateragarria da finka kokatuta dagoen udalerriaren herrigunean bizitzea, eta herritik landa-eremura joan-etorriak egitea, produkzio-unitatea eta etxebizitza elkarrengandik bananduz.

“Nekazaritzan jarduteko asmoa duten hiritarren kasuan, ez dute argi ikusten jarduera hori burutzeko ez dela nahitaezkoa baserrian bertan bizitzea, hirigunetik urruti”



3. EAEko emakume nekazari gazteak

Generoaren ikuspegitik begiratuta, nekazaritzako enpleguak baditu zenbait ezaugarri propio. Nekazaritza eta abeltzaintzan diharduten emakumeen %7 baino ez dira ustiapenaren titularrak¹⁴; beraz, portzentaje horri baino ez zaio aintzatesten sektoreko profesional-izaera. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen tradizionalen %88 gizonezkoen titulartasunpekoa da, eta familia izaerakoa¹⁵. Familiako lan horren zati bat, ordea, emakumeek egiten dute, burutzen den lan osoa familia-buruari (aita edota senarra) atxikitzen bazaio ere. Beraz, egindako lanaren trukean emakumeek ez dute zuzeneko ordainsari pertsonalik jasotzen, ezta eskubide edota nortasun profesionalik ere. Emakumeek egindako lan horri familia barruan emandako laguntza edo lankidetzatza izaera egozten zaio eta, kasurik eta onenean, ustiapenaren titular-kide gisa agertzen dira Ustiapenen Erregistroan. “Titular-kide” izaera administratiboki inskribatu eta gero¹⁶, partaidetza partekatua legoke betebeharrak nahiz abantailei dagokienez; hala ere, errealitatean ez da halakorik gertatzen, ustiapena osatzen duten ondasunen aurrean emakumeek ez baitute titularrak beste gaitasun izaten, ez alde ekonomikoan, ez sozialean, ezta profesionalean ere.

“Nekazaritza eta abeltzaintzan diharduten emakumeen %7 baino ez dira ustiapenaren titularrak¹⁷; beraz, portzentaje horri baino ez zaio aintzatesten sektoreko profesional-izaera”



¹⁴ Gonzalo Saez de Sanmaniego, Euskonews-en elkarrizketatua, 2005/06/10-17

¹⁵ Gonzalo Saez de Sanmaniego Euskonews-en elkarrizketatua, 2005/06/10-17

¹⁶ La cotitularidad esta recogida en la Ley 19/1995 de Modernización de las Explotaciones Agrarias (BOE num 159 del 5/7/1995)

¹⁷ Gonzalo Saez de Sanmaniego, Euskonews-en elkarrizketatua, 2005/06/10-17

Horri guztiari, zereginak banatzeko modu tradizionala gehitu behar zaio, hau da, emakume baserritarrek batez beste 9,5 ordu ematen dituzte egunean etxeko lanak egiten eta etxea zaintzen; eta 9,02 ordu nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako egitekoetara. Guztira, beraz, egunean 18,77 orduko lanaldia egiten dute, astelehenetik igandera, etxe barruan nahiz etxetik kanpo¹⁸.

11. taula: Emakumeek batez beste egiten duten ordu-kopurua, zereginen eta egun-motaren arabera. 2008

	ETXEKO LANAK		USTIAPENAREKIN LOTUTAKO ZEREGINAK	
	Laneguna	Jaieguna	Laneguna	Jaieguna
Emakumeak guztira	9,51	9,65	8,79	9,25
Mendeko norbaiten ardura duten emakumeak	9,77	10,08	8,91	9,15

Bestalde, hirietatik landa-eremura egon den migrazioa dela-eta, jokabide tradizionalak aldatuz doazela ikusi da; hori horrela, ustiapen berean pertsona bat baino gehiago instalatzean, esaterako, nortasun juridikoko elkarteak eratu dira edota, halakorik ezean, emakume baserritarrek auto-enpleguari ekin diote. 2007-2013 planak (PDRS) ezartzen duenez, aurreko ekitaldian izandako 211 inkorporazio berrietatik 61 emakumezkoak ziren; hirigunetik etorritakoak gehientsuenak. Horregatik, esan daiteke, geroz eta emakume gehiagok jarduten duela nekazaritzan, bai kontratupeko langile gisa (%9 1989an; %22 199an)¹⁹; bai ustiapeneko titular moduan, hau da, auto-enplegu gisa (2005ean, sektorean sartu zirenen %50 emakumeak izan ziren). Aipatu beharreko beste gauza bat honakoa da: gizarte segurantzaren alta eman duten emakume gazte baserritarrek zenbait pizgarri dituzte 18/2007 legeari esker (Nekazaritzako erregimen berezian dauden langileak Gizarte segurantzako erregimen bereziko bere konturako langile edo autonomo gisa integratzen dituen). Bertan, kotizatze mekanismo berezia ezartzen zaie titularrei, horien ezkontideei eta 3. mailako odolkidetasunera arteko senideei. Hori horrela, titularraren ezkontide edo seme-alabei kotizazio-oinarriaren gaineko %30 murrizketa aplikatzen zaie, baldin eta jarduerari ekiteko unean 40 urte edo gutxiago baditu.

Nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean emakumeek aukeratzen duten jarduerari dagokionez, esan behar da, gizonetzkoen aldean, lurrarekin lotuago dagoen eredu hautatzen dutela, nekazaritza anitzagoa eta dibertsifikatuagoa landuz (basa-fruituak, orotariko frutak, fruta txikiak, okaranak, pikuak, sagarrondoak, marmeladak, gozoak, zukuak, barazkiak, loreak, lore lehorrak, sendabelarrak, oiloak, arrautzak, oilaskoak, txitak, kapoiak, txerriak, odolosteak, txorizoa, saltxitxoia, untxiak, bildotsa, esnea, gazta, ahuntz-gazta, ardi-gazta, mamia, ukuilua,

18 EHNE: "La situación del sector Agroalimentario en Bizkaia", 2008

19 1989 eta 1999ko Nekazaritza Errolda

behia, txahala, sagardoa, patxarana, perretxikoak, mihura, pomadak, xaboia, erleak, argizaria, kandelak, eztia, zumetza...); joera horren beste muturrean dago nekazaritzako prozesu industrial eta intentsifikatueta gailentzen den uniformetasuna eta homogeneousuna. Gainera, ez dute kanpoko ondasunez abusatzen, eta produkzioarekin lotutako egitekoen gain, uzta-osteko zereginen ere arduratzen dira, produktuak biltegitatu, manipulatatu, eraldatu eta merkaturatzeaz arduratuz.



4. Erakundeen esparru politikoa

4.1.- *Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB)*

Europar Batasuneko gobernuak definitzen dute Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB), eta gobernuak beraiek arduratzen dira politika hori aplikatzeaz. NPB izan da, zalantzarik gabe, Europar Batasuneko politika bateratu garrantzitsuenak, eta erakunde-sistemako elementurik funtsezkoenetarikoa. Hirurogeita hamarrek hamarkadan sortu zen, II. Mundu Gerraren hondamendiaren ostean elikagai gehienetan Europak zorrak zituen garai batean, hain zuzen ere. Politika horren mekanismoak, beraz, aipatu egoerari aurre egiteko sortu ziren; nekazaritzako produkzioa sustatu eta elikagaien horniketa bermatzea zen helburua. Horretarako, barne prezio eta erretegi laguntza eman zitzaizkien, esku-hartze eragiketen eta mugetako babes-sistemen bidez.

Hori horrela, 70. hamarkadan NPBK bere helburua erdietsi zuen, hau da, EB autosufizientziara bidean jartzea. Hori gutxi balitz, gaitzirik gabe produzitzen ere hasi zen; horietako batzuk, iraunkorrenak, esportatu egiten ziren, diru-laguntzei esker. Beste batzuk, ordea, biltegiatuta edota EBan bertan suntsitzen ziren. Neurri horiek, baina, aurrekontuaren gastua nabarmen igo ez ezik, zenbait distorsio ere eragin zituzten mundu mailako merkatuetan. Gainerakinen arazoari irtenbide bat eman behar zitzaionez, herrialde ugari (AEB buruan) presioa egin zuten, nekazaritzako komertzioan arau multilateralak ezar zitezkeen.

Hurrengo hamarkadan, gainerakinen produkzio hori mugatzea helburu zuten neurri politikoak abiarazi zituen Europar Batasunak: Esne-produkzioari ezarritako kuotak, laborantzarako erabiltzen den azalera mugatzea edota laguntzak eskatzeko gutxienezko animalia-kopurua pertsonako, produkzioetik lurrak kentzea...

2000 Agendaren berriztatzearekin areagotu egin zen NPBren norabide-aldaketa; hori horrela, europar nekazarien arteko lehiakortasuna sustatu zen, enpresa-eredua oinarri zuen nekazaritza eta abeltzaintza sortuz, eta nekazaritzako politika mundu mailako merkatu batera bultzatuz. Ondorioz, ustiapen txikien desagertzea eragin zuen horrek, hala Europar Batasunean, nola EBtik kanpo²⁰.

“2000 Agendaren berriztatzearekin areagotu egin
 zen NPBren norabide-aldaketak enpresa-eredua
 oinarri zuen nekazaritza eta abeltzaintza sortu eta
 nekazaritzako politika mundu mailako merkatu batera
 bultzatu ditu, ustiapen txikien desagertzea eraginez”

²⁰ Reforma de la PAC ¿Qué cambia?, COAG, 2005

Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) sustatuta, behin eta berriz arautu eta berriztatu da NPB. Ronda de Uruguay-ko negoziazioen bidez egin zen lehenengoa, 1994ean; bertan ziren Estatuak, merkataritzako arau multilateralak sortzea adostu zuten, nekazaritzako produktuen liberalizazioa lortu aldera. Erabaki hori 2004ko akordioaren bidez berretsi zen. “Garapenerako Doha-ko programa” rekin, izan ere, aurretiaz proposaturiko merkataritzako elkartruke bidezko negoziazioak lortutakoa baino liberalizazio handiagoa erdietsi nahi zen, nekazaritzako produktuei dagokienez.

Horrela, bada, hartu zituen Nekazaritzako politika berriak bere gain hartzen ditu merkataritzaren liberalizazioaren nahiz nekazaritzako produktuen des-arauketaren printzipioak, produkzioaren erabateko des-arauketaren atarikoia izan daitekeena, hain zuzen ere. 2003ko NPBren Erreformaren ardatzak honakoak dira: zuzeneko laguntzen desakoplamendua, zuzeneko laguntza horien modulazio edota murrizketa, eta baldintzatzea. Zuzeneko desakoplamenduak esan nahi du, laguntza horiek ez direla produkzioa bideratuko, hau da, ez dute loturarik izango nekazaritzako jarduerarekin. Nekazaritzako lurren jabeak zuzenean eskuratzeko modukoak izango dira, beraietan produzitzen duen ala ez kontuan hartu gabe. Baldintzatzearen helburua, bestalde, teorikoki behintzat nekazaritzako jarduera egokiak sustatzea da. Jarduera egoki horiek lirateke: ingurumenaren, animalien ongizatearen eta elikagaien osasungarritasunaren gaineko kudeaketan nahitaez bete beharreko arau integralak. Laguntzak jaso nahi izanez gero, ezinbestekoa litzateke arau horiek betetzea. Modulazioak, bestalde, laguntzen murrizketa lineala dakar; hau da, urtean %3ko murrizketa gauzatuko litzateke, 7 urtean %20ra iritsi arte, urtean 5.000 euroko laguntzatik aurrera. Murrizketa horren bidez lortutako diru-kopurua bigarren oinarrira bideratuko da, hau da, landa-garapenera²¹. Beraz, kutsu sozial eta ingurumenekoa eman zaion NPBren azken erreforma honek mantentze-politika gauzatzen du erreserba natural, parke, eremu berde eta abarren bidez, nekazal izaerarik ez duen paisaia anitza lortuz. Edozein kasutan, nekazaritzaren industrializazioan eta familiako nekazaritzaren desagertenean beste pausu bat da. Europar Batasunean, izan ere, nekazaritzako ustiapen bat ixten da minuturo. NPBk finkaturiko gidalerroak Estatu bakoitzean garatzeko, Landa Garapenerako Sektore Planak gauzatzen dira; horien bidez esleitzen dira laguntza guztiak, ardatz eta neurri jakin batzuen arabera.

Elikagaien produkzioari dagokionez, EB da mundu mailako bigarren elikagai esportatzaile garrantzitsua. 2006an, esaterako, 72.553 milioi euroko balioa zuten esportazioak gauzatu ziren nekazaritzako sektorean. Horrek, ordea, ez du esan nahi barne merkatua hornitzeko beste kopuru ekoizten denik. Izan ere, nekazaritzako produktuen inportazioa 67.876 milioi de eurokoa izan zen 2006an. Hau da, EB izan zen inportatzaile nagusia.

21 Europar Batzordeko Nekazaritza eta Landa-garapenerako Zuzendaritza Nagusia: http://europa.eu.int/comm/agriculture/index_es.htm

“Mundu mailako elikadura-produkzioa nahikoa izango litzateke planeta osoko pertsonen oinarritzko elikadura-beharrizanak asetzeko²². Hala ere, 1.000 milioi lagunetik gora dira malnutrizioa jasaten dutenak eta 3tik 2 baserritarrak dira”

Ondorioz, orain arte hartu diren politika desberdinek elikagaia merkantzia bilakatu dute, multinazionalen onurarako. Bitartean, gosea gutxi batzuentzako mozkin gisa saltzen da salgaien eperako merkatuan²³. Mundu mailako elikadura-produkzioa nahikoa izango litzateke planeta osoko pertsonen oinarritzko elikadura-beharrizanak asetzeko²⁴. Hala ere, 1.000 milioi lagunetik gora dira malnutrizioa jasaten dutenak; eta bitxia bada ere, 3tik 2 baserritarrak dira²⁵. Bitartean, elikagaien sektorean diharduten multinazionalak irabaziak metatu besterik ez dute egiten, erabat monopolizatuta dutelako elikaduraren katea, hau da, produkzioa, eraldaketa eta banaketa. Hori horrela, mundu mailako diru-sarreraren %6 eskuratzen dute, 3,5 bilioi euro, alegia. Estatu Batuetako Cargill enpresaren mozkin garbiek %86 egin zuten gora 2008an aurreko urteko datuekin alderatuta, hau da, 1030 milioi dolar guztira; Bunge-ren salmentak %189 igo ziren, 867 milioi dolarreko mozkinak lortuz; Monsanto-ren mozkinak 2.230 milioi dolar ingurukoak izan ziren; eta DUPont-ek 786 milioi dolarreko irabaziak izan zituen²⁶. Negozio-bolumena esanguratsua izan arren, nazioarteko enpresa ugari milioika dolarretako diru-laguntza jasotzen dute Gobernuaren eskutik eta, horri esker, munduko nekazaritza merkatuetan duten kuota mantendu ez ezik, handitu ere egiten dute.

4.1.1- NPBen lurreratzea EAE

2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak arautzen du Euskal Nekazaritza Politikaren produkzio, eraldaketa, ontziratze eta merkaturatzea.

EAEk modu zorrotzean errespetatu ditu Europatik etorritako gidalerroak; horregatik, nekazaritza intentsiboan oinarritutako ereduak sustatu du, ahalik eta denbora laburrenean irabaziak lortzeko asmoarekin. Eredu hori errentagarria da oso eta, ustez behintzat, merkatu librearen logikarekin

²² www.fao.org

²³ Gomendatutako irakurketak: Action Aid Internacional: Hambre de poder. Seis razones para regular las empresas globales de alimentos, 2006 (www.redcomagri.org); Carin Smaller: 3 D y IATP: Sembramos la semilla de los derechos. Examen del comercio agrícola y la OMC desde la perspectiva de los derechos humanos. 1. zk. 2005eko martxoa (<http://www.tradeobservatory.org/library.cfm?refid=69824>); FIAN: El acuerdo sobre agricultura de la OMC y el derecho a la alimentación. Contexto, conflicto, violaciones de los derechos humanos (www.fian.org/fian-es/index.php?option=com_doclight&Itemid=97&task=download&dl_docID=40); Focus on the Global South/Redes-Amigos de la Tierra: Los nuevos conquistadores: De cómo la OMC y la agroindustria nos roban la soberanía alimentaria (www.grain.org/biodiversidad/?id=196);

²⁴ www.fao.org

²⁵ Geografía del hambre: perfiles de la población hambrienta, 2009 (www.desigualdadesinjustas.blogspot.com)

²⁶ “La próxima burbuja será la burbuja alimentaria”. Andreu Martí, Argenpress, 2008. www.rebellion.org

bat egiten du. Hala ere, alde batetik, abantaila ekonomikoak ez dira uste bezain argiak; izan ere, produkzio-prozesuan barne hartzen diren input kopuruak errendimenduaren beherakada dakar landare eta animaliei dagokienez, eta horrek zera dakar: ekoizleak jaso beharreko prezioaren beherakada, nekazal sektoreko enplegu-galera, nekazaritzaren industrializazioa, eta onura guztiarekin geratzen diren egitura eraldatzaile nahiz merkaturatzaileen sustapena, kontsumitzailearen gain karga guztia uzten duena. Bestetik, nekazaritzako kontabilitatean ekarpenak edota kalteak zenbatu beharko lirateke (elikagaienak, ingurumenekoak, laneoak edota landa eremukoak). Hala ere, ez da horrela gertatzen eta, ondorioz, ingurumeneko eta gizarteko kostu nahiz etekin sozialak ez daudenez behar bezala islatuta produktuen prezioetan, merkatuak, berez, ez du baliabideen esleipen optimoa ahalbideratzen.

“Produkzio-prozesuan barne hartzen diren input kopuruak errendimenduaren beherakada dakar landare eta animaliei dagokienez, eta horrek zera dakar: ekoizleak jaso beharreko prezioaren beherakada, nekazal sektoreko enplegu-galera, nekazaritzaren industrializazioa, eta onura guztiarekin geratzen diren egitura eraldatzaile nahiz merkaturatzaileen sustapena”



Era berean, esan beharra dago, zenbait kapital-laguntza jaso dituzten arren, Administrazioak sustatutako produkzio-proiektuek (Iparlat, Gurokela, Cuarta Gama de Horticolas) porrot egin dutela²⁷.

EAEEn aplikatu diren politikek ondorio sozial larriak eragin dituzte: Baserritar-kopuruaren beherakada eta nekazaritzako produkzioaren galera. 1999an guztira 39.956 ustiapien zeuden erroladatuta EAEen: 7.218 Araban (%18), 12.405 Gipuzkoan (%31) eta 20.333 Bizkaia (%51)²⁸. Gaur egun, aktiboan dauden ustiapienak 25.000 inguru direla uste da²⁹. Datu horiek enpleguaren arlora eramanaz gero, esan nahi du, %43 galdu dela; produkzioari dagokionez, gure barne kontsumoa %20an ere ez dugu hornitzen³⁰.

“EAEEn aplikatu diren politikek ondorio sozial larriak
eragin dituzte: Baserritar-kopuruaren beherakada eta
nekazaritzako produkzioaren galera”

Era berean, belaunaldi berriei dagokionez ere arazoa dago; hau da, ustiapienen titularrak geroz eta zaharragoak dira³¹. Azken termino horren inguruan, eta sektorean gazte gehiago sartzeko helburuarekin, Landa Garapenerako Euskal Planak diru-laguntza bat ematen die Gaztenek (Nekazari Gazteen Plana) prozedurarekin bat egiten duten pertsonen, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte: 40 urtetik behera izatea, beharrezkoak diren kalifikazio profesionalak izatea eta dagokion nekazaritzako jarduerak garatzeko enpresa-plan bat aurkeztea. Bada, 2000-2004 ekitaldian, neurri horretaz baliatuta, 211 lagun berri lortu ziren³²; 2007-2013 epealdiari begira, berriz, 700 nekazari gazte berri lortuko direla aurreikusi da. Neurri hori erabat oinarritzkoa eta sektorearentzako hila ala bizikoa izan arren, EHNE sindikatuaren esanetan ez ditu usten bezain emaitza onak eman; horrez gain, konpondu beharreko zenbait gabezia ere baditu, hala nola:

- a) Diru-laguntza egin beharreko inbertsioen arabera ematen da, eta sektorean instalatzeagatik soilik. Prozedura horrek, ordea, kanpoan uzten ditu guztiz bideragarriak eta interesgarriak izan arren inbertsio handirik behar ez duten proiektua; ondorioz, dagoeneko intentsifikatuta eta industrializatuta dauden nekazaritza-ereduetan instalatzera behartzen ditu gazteak, horrek dakarren guztiarekin (ustiapena kudeatzeko gaitasunaren galera, kanpoko inputak erabili beharra, produkzioa merkaturatzeko orduan erosketazentralekiko mendekotasuna...)

27 www.ehne.org; www.baserribizia.info

28 Iturria: Nekazaritza Errolda 1999

29 Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013; Eusko Jaurilaritza, 25. orria

30 www.ehne.org

31 Oinarritzko adierazlea: Nekazaritzako adinaren egitura (IB05)

32 PDRS 2007-2013, 141.orria

- b) 2007-2013 Planak ezartzen duenez, sindikatuek, kudeaketa-zentroek eta ADRAek³³ gauzatu ahalko dituzte monitorizazio eta tutoretza lanak. Praktikan, hala ere, sektorean instalatuko diren pertsonak ez dute beraien tutore edo monitorea libreki aukeratzeko aukerarik. Bizkaian, esate baterako, nahitaezkoa da LORRA S.Cren bitartekaritza, berori baita kudeaketa-zerbitzu tekniko-ekonomikoa emateaz arduratzen den zentroa. LORRA S.Cren bidez sustatzen den nekazaritza-eredua intentsiboa edo industriakoa da; beraz, ezinezkoa da nekazari gazteek lurrari edo baserri giroari lotitako nekazaritza-eredu bati ekitea.
- c) Lursailak eskuratzeko dagoen zailtasuna ez da behar beste azertu, eta eskaintzen den laguntza edota diru-laguntza eskuratzeko, beste neurri batzuk bete behar dira aldeaz aurretik, esaterako, Nekazaritzako Lurzoru Fondoaren abian jartzea. Nekazaritzako Lurzoru Fondoaren figura Nekazaritza eta Elikadura Politikarako 17/2008 Legearen bidez onartu zen (13. eta 14. artikuluetan); une honetan arau bidez garatu behar da Lurralde Historiko bakoitzean. Laburbilduz, lurraren bitartekaritza eta esku-hartze zentroa da, titulartasun publiko nahiz pribatuko lursailak kudeatu, eta nekazaritza edota abeltzaintzako sektorean instalatu nahi dutenen esku jartzen duena.



5. Elikagaien subiranotasuna, nahi eta ahal den etorkizuna

Baserritar gazteen baldintzak hobetzearen eta produkzio eta gizarte eredu iraunkor bezain justu baterantz jotzearen aldeko gure apustua erabat argia da: Egun bizi dugun elikagai eta ekologia krisiari aurre egiteko elikagaien subiranotasuna landu behar dugu³⁴; hau da, geure burua hornitzeko gai zian behar gara, familiatik hasi eta udalerria gero eta herrialde osoa geroago estali arte. Horretarako, baina, nahitaezkoa da produkzio-prozesua modu autonomoan kontrolatzea. Horrekin guztiarekin, elikagai ez-kaltegarriak eta nutritiboak lortzea bermatuko dugu, bai fisikoki bai ekonomikoki. Modu horretara, udalerrietako nahiz nazioetako biztanleen elikadura-beharrizanak hornitu eta ase ahalko dira, aniztasun produktibo nahiz kulturala errespetatuz, betiere.

“Baserritar gazteen baldintzak hobetzearen eta
 produkzio eta gizarte eredu iraunkor bezain justu
 baterantz jotzearen aldeko gure apustua erabat argia
 da: Egun bizi dugun elikagai eta ekologia krisiari aurre
 egiteko elikagaien subiranotasuna landu behar dugu”

Errealitateak dioenaren arabera, ordea, egunez egun geroz eta gutxiago dira EAEko baserritarrak: 1980an 50.000 bazeuden, gaur egun 9.520³⁵ baino ez dira; beraz, geroz eta gutxiago produzitzen da, hau da, nekazaritzako ia produktu guztien produkzio-mailak behera egin du, zenbait kasutan modu esanguratsuan. Euskal nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreak herrialde osoa hornitzeko beste elikagai eta lehengai produzitu beharko lukeen arren, gaur egun, helburu hori lortzetik oso urrun gaude, EAEn ez baita produzitzen kontsumitzen den guztiaren ezta %20 ere. Beraz, elikaduraren subiranotasuna bideragarria izateko, bi elementu behar dira: Alde batetik, EAEko herritarrak hornitzeko beste lur babestea, eta bestetik, beharrezkoak diren elikagai horiek produzituko dituzten baserritar gazteak lur horietan instalatzea, EAEko nutrizio-beharrizanak asetu aldera. Lehenengo baldintzari dagokionez, EHNEk egindako azterlanek adierazten dutenez, egungo biztanle-kopurua artatu ahal izateko 660.828 Hektareako nekazal-lurak babestu beharko lirateke, honela banatuta:

34 Jean-Christophe Kroll eta Aurélie Trové-k egindako azterketak nekazal eta elikadura arloko politiken esparru berri bat sortzeko beharrezkoa islatzen dute. Produkzioaren kostu errealek arabera prezioak eta gizarte eta ingurumen arloko baldintzak bermatzen dituen produkzio nahikoa ezariz. Halaber, Nekazaritza, Zientzia eta Teknologia arloko Ezagutzaren Nazioarteko Ebaluazioari buruzko txostenak, agroekologiaren garapenari eta zirkuitu berdeei buruz hitz egiten du. Ikerketa biek hartzen dute oinarritzat elikadura arloko subiranotasuna.

35 Herritar aktiboen inkesta: www.ine.es

- 25.604 ha barazkitarako.
- 224.036 ha artotarako.
- 853 ha arrautzak produzitzeko.
- 354.191 ha behin eta txahal okela produzitzeko.
- 9.204 ha fruta produzitzeko.
- 46.940 ha esnea eta esnetik eratorritako produktuak produzitzeko

Goian aipaturiko baldintza biei (nekazaritzarako lurra + aktiboak), elikadurari dagokionez auto sufizienteak izateko nahitaezkoa da azpiegitura eta lege esparru malgua izatea, baserritarrek elikagaiak lantzeko orduan sustapen nahikoa izan dezaten. Era berean, merkaturatze-sistema alternatiboa beharko litzateke, elikaduraren subiranotasuna ahalbideratuko lukeena: baserritarrei ordainsari duinak emanez eta kontsumitzaileei prezio justuak eskainiz.

Ildo horretatik jarraituz, esan beharra dago, elikaduraren subiranotasunaren edukiarekin lotuta badirela toki mailan gauzatzen diren bi proiektu. Erralde Hiltegia da horietako lehenengoa. Bertan, egungo joerari (prezioen gain eragindako presioaren bidez, sektore guztiak enpresa jakin baten inguruan bildu eta monopolioak sortzen dituen) kasurik egin ez, eta ohiko modu tradizionalan jarduten du³⁶. Horrelakoak bezalako hiltegiek, abeltzain txikien bizirautea bermatzen du, produktore txikiz osatutako sektorea sustatzen lagunduz eta kalitate bikaineko azken produktua lortuz.

Bigarren proiektua Nekasarea ekimena litzateke. Programa arrakastatsu horrek zuzeneko harremanetan jartzen ditu kontsumitzaileak eta produktoreak; azken horiek, horrela, hornitzaile lanak egin eta, astero, kontsumitzaileei beraien produktuak eskaintzen dizkiete, denboraldiko produktuen “otzara” sistema erabilia. Nekasarea kontsumo-sareak, alde batetik, enplegua sortu du, jende gaztea hasi baita sektorean lanean; bestetik, kontsumitzaileen elkarte alternatiboak sortu arazi ditu, gizakien arteko harremanean oinarritutako kontsumo-eredua sustatuz, ingurumena eta elikadurarekin uztartuta. Kontsumitzaileak produktoreekin kontaktuan jartzearekin batera, badakite nor den beraien hornitzailea, zein den bere lan egiteko modua eta, azken finean, zer den jaten dutena. Horrela, elkarriz laguntza emanez, denboraldiko elikagai osasuntsuen produkzio nahiz kontsumoa sustatzen dute, zirkuitu laburren bidez banatuta. Modu horretara, bitartekoen sarea saihesten denez, landa-eremuko bizi baldintzak duinagoak bilakatzen dira, kontsumitzaileei prezio justuagoa eskaintzearekin batera.

³⁶ Lan tradizionalaren desberdintasuna zera da; hil ondoren koipea eta erraien zati handi bat mantentzen dela. Horrela errazagoa izango da animaliak zein elikadura mota izan duen jakitea –koipeari begiratzuz-, baina gainera, haragia mantentzeko eta kalitateari dagokionez, hobea da. Bestalde, lan mota horri esker, ganaduzaleak gehiago irabazten du pieza bakoitzeko. Izan ere, guztizko pisuagatik ordaintzen zaio, koipeari dagokiona deskontatu gabe. Lan mota hori lagungarria izaten ari da euskal ganaduzaleentzat, lortzen diren haragien kalitate onagatik merkatuan lekua lortzen ari baitira.

“Apurka-apurka bada ere, etorkizun berria garatzen ari da nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean, gizarte osoan eragiten duena; eredu sozial eta iraunkor bat jarraiki, enplegua sortzeko gai den eredua, nekazaritzan eta abeltzaintzan jardun nahi duten gazteei aukera berriak emanez”

Aipatu bezalako ekimenek erakusten digutenez, apurka-apurka bada ere, etorkizun berria garatzen ari da nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean, gizarte osoan eragiten duena; eredu sozial eta iraunkor bat jarraiki, enplegua sortzeko gai den eredua, nekazaritzan eta abeltzaintzan jardun nahi duten gazteei aukera berriak emanez eta hein berean prezio duinean kalitatezko jakiak eskaintzen dizkiona kontsumitzaileari.

